



ikastolak



GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA TAFALLA



Sustrai proiektua Haur Hezkuntzako mailatan garatzen da.

Sustrai proiektua, Haur Hezkuntza eraldatzen

TAFALLAKO IKASTOLAN, IKASTOLEN HAUR HEZKUNTZAKO PEDAGOGIA BERRITZAILEAN OINARRITUZ, GUREA SORTU DUGU, INGURUNEARI ETA GURE IKASLEEN BEHARREI EGOKITUZ

Testua eta argazkia Garcés de los Fayos Ikastola

Sustrai proiektua martxan jarri dugu, ikastolek dugun 50 urtetako esperientziari esker. Ikastolen marko pedagogiko berritzaile hau, azken urteetan psikologia, neurozientzia eta etologian egindako ikerketetan oinarritzen da.

Gure proiektua, Sustrai izenarekin izendatu dugu, gure ikastolako logoa, zuhaitz bat da eta honen

oinarria sustraiak diren bezala, haur hezkuntza, haurren garapeneraren oinarria izango da.

Haur hezkuntzako etapan zehar, haurrak, oinarritzko konpetentziak bereganatzen hasiko dira. Hauexek dira: izaten ikasi, elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi eta pentsatzen eta ikasten ikasi. Pedagogi berri honetan, espazio desberdinetan,

haurrek oinarritzko konpetentzia hauek garatzeko aukera izango dituzte.

Marko pedagogiko berri honetan, haurra bere ikaskuntza prozesuaren protagonista da, berezko erritmoak markatuz eta bere denbora kudeatuz. Horrela, bere autonomia, autoestimua eta ardurak sendotuz. Gizakiok sen batzuekin jaiotzen

gara eta hauek garatu behar ditugu. Sen hauek, ondorengoak izango lirateke: Atxikimendurako sena, miazteko, zainketarako, harremanetarako, erasorako, beldur, sexu eta erakusteko sena. Konfiantzazko giro lasai batean, haurrak bere senak asetzen ditu testuinguru aberats baten bidez, bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzen dituen

bitartean.

Haur hezkuntza, interesgune desberdinetan antolatua dugu; espazio sinbolikoa, ikerketa eta sormena lantzeko espazioa, eraikuntza-eremua eta mugimendu espazioa.

Hainbat momentuetan, haurrak askatasun osoa du bere miazte sena asetzeko. Intentzio pedagogiko batekin antolatuta dagoen espazio bakoitzak, maila desberdinetako erronkak proposatzen dizkio haurrari. Honen helburua, txikiaren zirrara eragitea da eta honela, ikasteko prozesu arrakastatsu eta eraginkorra emango da. Adin desberdinetako haurrak, zirkulazio librea bidez, gune berean egoten dira, Zaharren zaintza sena asetzen duten bitartean, txikiaren imitazioaren bitartez ikasten dute.

Irakasleak haurra zaindu, ulertu eta behatuko du, bere zailtasunetan lagunduz, harreman afektibo seguruak sustatuz. Izan ere, segurtasun afektiboa, miazte sena pizteko baldintzetako bat da. Modu honetan, hezitzailea haurren bidelagun izango da, bere garapenean lagunduz. Aldi berean, proiektu eta erronka motibagarriak proposatuko dizkio.

Haur guztiek adinaren arabera, beren erreferentziatzko taldea dute eta dagozkien tutoreekin. Egunean zehar, hainbat momentuetan elkartuko dira; harrera eta agurra egiteko, hamaiketakoak jateko, euskara sustatzeko jarduerak bereziak egin eta ikasleek beraien proiektuak aurrera eramateko aukera izango dute.

Kanpoko espazioek, garrantzi handia dute, elementu naturalek ikerketarako sena indartu, jakin-mina estimatu eta haurren arteko interakzioa sustatzen dute. Tafallako ikastolan etapa bakoitzak bere baratza dauka eta haurrak dira baratzaren kudeatzaile eta ardura-dunak.

Familiaren presentzia ezinbestekoa da haurren garapenean eta honela ikastolako hezkuntza integrala aberasten da. Gure proiektu berri honetan badute beraientzako gune bat, guraso txokoa hain zuzen ere. Bertan beste gurasoekin esperientziak elkar trukatzeko aukera, irakasleekin harremanetan jartzeko edo beraien seme alabaren erritmoa moldatzeko aukera dute.

Haurra, familia eta irakasleok guztiak bat, erronka berriei ilusioz erantzunez, aurrera goaz Tafallako Ikastolan, XXI. mendeko hezkuntzarako bidean. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zeintzuk dira haurren senak?
2. Zenbat konpetentzia lantzen ditugu?
3. Zein da Haur hezkuntzako proiektuaren izena?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Xabier Sarobe (Baztan Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Aroa Moreno (Ibaialde Ikastola).



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA



fundación osasuna

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua eraikundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.